

ESKOLAZ KANPOKO EKINTZEN GIDA 2016-17

Gurasogune/Apymak 2016/2017 kurtsoarako antolatu dituen Eskolaz kanpoko ekintzen gidatxoa eskaintzen dizuegu. Gida behin behinekoa da, eta eginda dago ikuspuntu berezi batetik, hau da; ikastetxean "transizio garaia" bizitzen ari gara familia-elkarteari dagokionez.

Gurasogune/Apyma-n kurtsoan zehar eskolaz kanpoko ekintzei buruzko monografikoa egingo dugu, gaurko eta etorkizuneko planteamendua baloratzeko eta berari buruz hausnartzeko. Asmoa da hausnarketa horien emaitza adostea eta zehaztea familiek egindako manifestu gaurkotu batean, 2017-2018 kurtsoan eskolaz kanpoko ekintzetan erabiltzeko.

Ekintzen, ordutegien eta prezioen taula elkartearen webgunean duzue, liburuxka digital informatzailean(<http://apymaandramari.blogspot.com.es/>).

2016/17 kurtsoan eskolaz kanpoko ekintzen behin behineko gida honetako puntuak hauexek dira:

0. Eskolaz kanpoko ekintzetan izena-emateak gida honetako puntuak onartzea eta errespetatzea eskatzen.

1. Apymak antolatutako eskolaz kanpoko edozein ekintzetan izena emateko bazkide izan behar da.

Apymaren kuota urtean behin ordaitzen da, urrian, eta familiako 35 eurokoa da.

Alta urtero berritzen da automatikoki. Baja hartu nahi duenak idatziz adierazi beharko du, eta zuzendu beharko dio emailaz elkarteari apyma@andramari.net.

2. Eskolaz kanpoko ekintzen ordainketa helbideratutako banku-ordainagiri bidez egingo da Apymak emandako kontu-zenbakian, hilero lehengo astean.

Hementxe duzu [formulario](#) bat bazkide egiteko, edo bazkide bazara baina banku-informazioa edota beste edozein datu aldatu behar baduzu.

3. Familiekin harremanetan jartzeko ikastetxeak ikasleei emandako posta elektronikorako kontuak erabiliko dira.

Apymak darabilen helbidea eskolaz kanpoko gaietarako hauxe da:

extraescolares@andramari.net.

Familiaren batek beste kontu bat erabili nahi badu, alta-n eman beharko du hurrengo [link](#) honetan.

Eskolaz kanpoko ekintzek gestio-lan handia eskatzen dute. Beraz, **eskertzekoa litzateke eskolaz kanpoko talde bakoitzeko familia bat arduratuko balitz. Familia horrek informazioak eta zalantzak kudeatuko lituzke eta gero Gurasogune/Apymari esango lioke**, banan-banan egin beharrean..

4. 2016/2017 kurtsoko eskolaz kanpoko ekintzetarako inskripzioak egin ahal izango dira:

- **Online**, Interneteko formulario baten bidez, **ostiraletik, irailak 16**, formularioa bidaltzen dutenetik **asteartera arte, irailak 20, 24.00etan**.
- **Telefonoz**, Ana Tereri **688 81 03 41** zenbakira, **klase orduetan, Irailaren 19 eta 20an**.
- **Ikastetxeko bulegoetan**, Ana Tereren bitartez, **klase orduetan**.

5. Gehienez 2 ekintza aukera ditzake ikasle bakoitzak, 3 horietako bat egun bakarrekoa bada.

6. Kirol ekintzetarako, nahiz eta ikasleek preinskripzioa ekainean egin zuten, ezinbestekoa da orain inskripzioa egitea. Dena den, plaza bermatuta dago.

7. Inskripzioen trataera:

- Inskripzio guztiak onartuko dira, erregistro-hurrenkerarik gabe.
- Ekintzaren batean ikasleen gutxieneko kopurua ez badago, saiatuko da mantentzen; horretarako kontuan hartuko da alde ekonomikoa edota beste kriterio batzuk (adibidez, kirol talde batean jokalaria gutxieneko kopurua). Bestela, ez da aurrera aterako.
- Saiatuko da hiruhileko bakoitzean proposatutako ekintzetan ahalik eta ikasle gehienek parte hartzea. Horregatik, gehieneko kopurua gainditzen bada, ordutegia eta egunak alda daitezke: posible bada beste egun edota ordu batzuk gehitzea, hornitzaileak onartzen badu, eta gehieneko kopurua gainditzen den ekintzetan dauden ikasleen familiek ere erabakitzen badute. Hori gertatzen bada, elkarteak kudeatuko du eta familiei esango die, adostasun batera ailegatzeko asmoarekin.
- Adostasunik ez balego edota leku/ordu librerik ez balego, zozketa egingo da ikasleen artean; eta plazarik gabe geratzen direnak itxaron zerrendan egongo dira.

8. Autobusa

Autobusa plus bat da ikastetxeko eskolaz kanpoko ekintzeetan, "bizitza-kaltitatea"-ri dagokionez. Kalitateak badu bere prezioa, eta nabarituko da ekintzen kuotetan.

Oso garrantzitsua da autobusa eskatzen bada, benetan erabiliko delako izatea. Erabiltzen ez bada, ekintzen prezioa handitzen da alferrik.

Eskatzen dugu autobusa erabiltzeko modu arduratsu batean. Beraz, ikasle batek hartzen ez badu, esan beharko du alde aurretik:

- Eskolaz kanpoko ekintzen emailera (extraescolares@andramari.net), edo,
- telefonoz Ana Tereri eskolako ordutegian 688 81 03 41 zenbakira.

Gogorazi nahi dizuegu ikastetxea ixten dela eskolaz kanpoko ekintzen autobusa atera ondoren. Beraz, garrantzi bizikoa da umeak garaiz hartzea dagokien geltokian.

9. Bajak

Eskolaz kanpoko ekintzak urriaren 3an hasiko dira eta maiatzaren 31n bukatuko dira. Ekainean ez da egongo.

Bajak idatziz komunikatu beharko dira hurrengo emailera extraescolares@andramari.net, **hilabetea bukatu baino 10 egun lehenago**, baja onartzeko hurrengo hilabeterako.

Opor-egunak ez daude 10 egun horien barruan, ikastetxea itxita baitago eta ez baitago inor baja horiek kudeatzeko.

Bajek eragina izaten dute ekintzak aurrera eramateko, bai ekonomikoki, bai aktibitate batzuk egiteko.

Eskatutako bajek eragina badute ikasleen gutxieneko kopuruan, banan-banakako kasuak aztertuko dira; eta agian ekintza hori bertan behera utzi beharko da.

10. Iradokizunak eta proposamenak

Ekintza berrietarako proposamenak, ekintzeei buruzko iradokizunak edo hobekuntzak:

- **emailez** bidal daitezke extraescolares@andramari.net edo,
- **elkartearen edozein bileretan**.